

Herri ondarea handituz: trikuharri berri bat Txoritokietan

Jesus Tapia, Manuel Ceberio

Aranzadi Zientzia Elkarte. Historiaurrea Saila.

Oarso aldizkariaren 2012ko alean, Txoritokietako estazio megalitikoan eta inguruko mendixketan hasitako arkeologia proiektuaren berri eman genuen, leku hauek historiaurreari buruzko ikerketetan izan dezaketen garrantzia azpimarratuz, bertan gero eta ugariagoak baitira aurkikuntza arkeologikoak. Berrozpinen Neolito-Brontze garaietako eraikuntzen ugaritasunaz gain suharrizko pieza solteak azaltzen zirela ikusirik, indusketak han hasi genituen informazio gehiagoren bila.

2011n, harriz egindako egitura bat aurkitu genuen, gure ustez trikuharri baten tumulua (hilobi-ganbara estaltzen duen harriz eta lurrezko metaketa) izan zitekeena. Kanpaina hura bukatzean ganbara aurkitu ahal izan ez genuenez, ezin izan genuen erabat zehaztu zein motatako egitura izan zitekeen (trikuharria, tumulu soila, harkutxa, edo bestelakoa), eta hurrengo kanpainara arte itxaron behar izan genuen.

2012an indusketa-eremua zabaldu dugu, ia aurrekoa bikoiztu arte, eta horrek egitura osoaren ikuspegia izateko aukera eman digu. Belarrak eta azaleko lurak kendu ondoren, trikuharri txiki baten egitura argi eta garbi azaldu zaigu, eta bere ezaugarri garrantzitsuenak aztertu ahal izan ditugu. Monumentu berri honi *Berrozpin IV* izena jarri diogu, eta bertan ezagutzen den megalito multzo hori 6 elementuz osatuta izatera pasatu da: Aitzetako Txabala, Berrozpin I, II, III eta IV, eta Txoritokietako Monolitoa. Tamalez, trikuharri honek ere, besteen kasuetan bezala, kondaira zaharretan aipatzen diren altxorren bilaketaren eraginak jasan izan ditu, eta honen ondorioz eraikinaren egoera ez da jatorrizkoa. Datu asko betiko galdu dira.

Trikuharri berri hau hondatuta badago ere, bere ezaugarri garrantzitsuenak aztertzeko aukera izan dugu indusketari esker. Berrozpin IV trikuharri txikia izango zen, diametroan 6 metro ingurukoa. Egitura hiru elementuz osatua dago: tumulua, ganbara, eta ganbarari eusteko bere inguruan harriz egindako eraztun bat, horiek denak kanpoko harririk erabili izan gabe, bertan harri egokiak azaleratzen baitira.

Ganbarari dagokionez, harlauzez eraikia izan zen Hego-Ekialderantz begira, Gipuzkoan ohikoa den bezala. Egituraren eraipen partzialaren ondorioz ganbararen lauza batzuk falta badira ere, gelditzen diren biak hilobiaren neurriak ezagutzeko nahikoak dira. Bi lauza horietatik, bata ganbararen iparreko hormarena da, eta bestea zorukoa, eta biek mugatzen duten gutxieneko tartea 1,5 x 0,75 metroko zabalera dauka. Haien inguruan harrizko blokeak jarri ziren, ganbara sendotu eta eusteko, eta ganbarako zenbait lauza falta badira, haiek utzitako hutsuneak ikus daitezke zoruko lauza eta harri-eraztunaren tartean. Dena den, harrizko

M. Ceberio



Indusketa eremuaren ikuspegi orokorra.

eraztun honen funtzio bakarra ez zen ganbara eustea izango, baizik eta egitura osoari handitasuna ematea ere eta hilobia monumentu bihurtu. Azkenik, tumulua edo harrizko estaldura bloke txikiagoz egin zen, ganbara eta eraztuna inguratuz, baina, antza denez, eraztuna zeharo estali gabe.


Aurkikuntza berri honen garrantzia ez da megalitoen multzoa handitzea bakarrik. Horretaz gain, megalito multzoaren hainbat informazio aztertu ahal izateko abiapuntua da, bai eraikitze teknikei dagokienari buruz, baita kronologia eta espazioaren antolaketari buruz ere.

Momentuz, nahiz eta oraindik xehetasun guztia aztertzeke denborarik ez dugun izan, badirudi monumentuen diseinu arkitektonikoak ez direla kasu guztietan berdinak, eta horrek, agian, denboran zeharko eboluzio teknikoak adierazi dezake. Bestalde, ardatz kronologiko honi helduz, espazioaren okupazioa ere oso interesgarria izan daiteke, eremuaren murriztasunak lehenetasun ordena bat ezar baitezake trikuharrien kokapenak erabakitzean, ordena hori bai kronologikoa (eraikitako azken monumentuak libre gelditzen diren lekuetan kokatzen badira), bai hierarkikoa izan

daitekeena (garaikideak baldin badira, monumentu garrantzitsuenak lekuri onenetan kokatzen dira).

Horretaz gain, inguru osoko lur azalean aurkitzen diren piezen kopurua ere gero eta handiagoa da urtez urte. Pieza horiek adierazten duten okupazioa megalitoen garaikidea izan daiteke, oro har Neolito-Brontze garaikoa. Aipatu dugun bezala, megalitoen arteko tarte kronologikoa zehaztea lortuko bagenu, orduan hasi gintezkeen espazioaren bi erabilera horien arteko lotura aztertzen, hau da, bizileku eta nekropoliaren arteko erlazioa argitzen.

Hauexek dira, bada, datozen kanpainetarako helburuak, eta, nahiz eta lan asko izan, emaitza zientifiko onak lortzeko itxaropenaz ekingo diogu berriz datozen urteetan. Bukatzeko, gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu Errenteriako Udalarari (Mendi eta Ingurumeneko Saila), eta Gipuzkoako Foru Aldundiari (Kultura Saila), proiektu honi emandako babes eta dirulaguntzengatik.



Berrospín IV trikuharriaren oinplanoa. (Planoa: M. De Miguel)

M. Ceberio



Ezaugarri arkitektonikoak: tumulua, eraztuna eta ganbara.

M. Ceberio



Ganbararen xehetasuna.